

2020ko IKASTAROAK IRAILA-ABENDUA

BEHARGINTZA LEIOA



1 LAN-KUDEAKETA, NOMINAK ETA GIZARTE-SEGURANTZA + NOMINAFOKE

Prestakuntzak LAN-KUDEAKETA barne hartzen du, non hitzarmen kolektiboak eta lan-kontratu baten ezaugarriak azaltzen diren. Probaldiak, iraupena eta abar barne hartzen ditu, baita enpresaburuen betebeharrak eta langilearen eskubideak eta betebeharrak ere. Halaber, lan-kontratu motak eta lan-kudeaketarako behar diren lau sistemak sartuta daude: Sistema - Contrata sistema - RED sistema - Delta sistema. Bestalde, ariketa praktikoak egingo dira ikasi egiteko enpresa bati Gizarte Segurantzaren alta nola eman, langileen alta eta nominak nola egin, eta nola bete Gizarte Segurantzaren likidazio-agiria, Gizarte Segurantzak SILTRA sistemaren bidez egiten duena (Gizarte Segurantzaren zuzeneko likidaziorako sistema berria). NOMINAFOKE: Enpresaren lan-kudeaketa programaren bidez egiten dugunez, NOMINAFOKE ikastaro osoa sartu dugu, aplikazio informatiko hori erabiltzen ikasteko. Pentsioen kalkuluari, hitzarmen kolektiboaren aplikazioari eta kontratua amaitzeagatik likidazioei buruzko ariketak ere sartu ditugu.

MODALITATEA

Online: prestakuntza-ikastaro hau online egiten da, bideokonferentzia-plataforma baten bidez.

HASIERA DATA
2020/10/16

AMAIERA DATA
2020/11/05

ORDUTEGIA
09:30 - 13:30

IRAUPENA
60

ZENBAT PLAZA
15

SARTZEKO BALDINTZAK

Lan Heziketa 2 - Goi Mailako Heziketa zikloetatik gora.

2 ERAKUSLEIHO-APAINKETA EDO ESKAPARATISMOA ETA VISUAL MERCHANDISING-A

Ondo dakigunez, irudi komertziala da gure merkataritzaren oinarri nagusietako bat. Ekintza honen bidez, sentsibilitate estetikoak eta espiritu berritzaileak duten pertsonak merkataritzan fisikoki eta birtualki ezartzeko joera eta aukera berriak zertan diren jakitea lortu nahi dugu.

MODALITATEA

Aurrez aurreko: Behargintza.

HASIERA DATA
2020/10/08

AMAIERA DATA
2020/11/05


ORDUTEGIA
09:30 - 14:30

IRAUPENA
100

ZENBAT PLAZA
10

SARTZEKO BALDINTZAK

Ez dago baldintzarik.



ENPRESA BAT ERATZEKO IDEIA SORTZEA ETA KUDEATZEA

Herriko ekintzaile guztiei zuzendutako prestakuntza enpresa bat eratzeko gaitasuna lantze aldera, prozesu horri aurre egiten lagundu diezaion. Negozio ideiak aztertzea, merkataritza-baliabideak estrategia on baterantz optimizatzea, eta proiektuak balioztatzea bai merkatuari, bai bideragarritasun ekonomikoari dagokienez.

MODALITATEA

Enpresen Haztegia.

HASIERA DATA
2020/11/09

AMAIERA DATA
2020/11/20


ORDUTEGIA
09:30 - 13:00

IRAUPENA
30

ZENBAT PLAZA
25

SARTZEKO BALDINTZAK

Ikastaro honetan izena emateko, ekintzaitza-teknikariarekin egon beharko da alde zuretik, negozio-ideiaren garapen-maila zehazteko eta prestakuntza hasi aurretik behar diren zalantza guztiak argitzeako.



3

TELEPRESTATZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA TEKNIKO ETA PEDAGOGIKOA

Ikastaro honen bidez, prestakuntza-ekintzak sistematikoki eta zorrotz planifikatu eta garatzeko behar diren ezagutza, trebetasuna eta jarrerak barneratuko dituzte parte-hartzaileek, gaitasun profesionalak lortze aldera. Era berean, bakoitzaren espezialitateko prestakuntza-ekintza zehatzak planifikatu eta kudeatzeko modua emango die, eta erakundearen plangintzarekiko adostasuna eta koherentzia bermatu. Programazio didaktikoko teknikak eta trebetasuna aplikatuko dituzte irakaskuntza-ikaskuntza prozesu baten diseinuan. Egiten diren prestakuntza-ekintzen garapenean elkarrekintza didaktikoko prozesua erraztuko duten gaitasunak eta ezagutza lortuko dituzte. Halaber, prestakuntza-jarraipen planifikatua egingo dute gaitasun profesionalak emateko eta edukitzeko. Ikaskuntzaren ebaluazio-probak egiteko aukera izango dute trebakuntza-mailak egiaztatzearen, bai eta lortutako trebakuntza-maila eta ikaskuntza-prozesua ebaluatzearen ere, diseinuaren, inplementazioaren eta lortutako emaitzen arabera, teknika eta tresna egokiak aplikatuta.

MODALITATEA

Online: prestakuntza-ikastaro hau online egiten da, bideokonferentzia-plataforma baten bidez.

HASIERA DATA
2020/11/02

AMAIERA DATA
2020/12/04

ORDUTEGIA
09:30 - 13:30

IRAUPENA
100

ZENBAT PLAZA
15

SARTZEKO BALDINTZAK

Lan Heziketa 2 - Goi Mailako Heziketa zikloetatik gora.

4

ELIKAGAIEN MANIPULATZAILE IZATEKO, ETA ALERGENOEI ETA INTOLERANTZIEI BURUZKO IKASTAROA

Elikagaiak manipulatzean elikagaien higieneko eta osasuneko teknika egokiak aplikatu ahal izateko jakintza bereganatuko dute parte-hartzaileek, elikagaiak kutsatzea saihestu eta elikagaiek eragindako asalduek ekidite aldera. Elikagaien industriako eta ostalaritzako espezialitateetan eta jardun profesionalerako behar diren beste espezialitate batzuetan baliatzeko izango da hori guztia. Bestalde, elikagaien manipulatzailearen ziurtagiria eskuratuko dute, agintari eskudunek egin behar dituzten kontrol ofizialeko bisitaldietan, eskutatuko prestakuntza duela erakusteko.

MODALITATEA		Online: prestakuntza-ikastaro hau online egiten da, bideokonferentzia-plataforma baten bidez.		
HASIERA DATA 2020/11/12	AMAIERA DATA 2020/11/13	ORDUTEGIA 09:30 - 14:30	IRAUPENA 10	ZENBAT PLAZA 10
SARTZEKO BALDINTZAK		Ez dago baldintzarik.		

5

GELA-ZERBITZARIA

Ikastaro honetan, ikasleek turismoaren garrantziari buruzko ideiak eta kontzeptuak hartzeko beharrezkoak diren gaitasun profesionalak bereganatuko dituzte, baita turismoaren eta ostalaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen arteko harremanaren ikuspegi orokorra eman, lana behar bezala egiteko beharrezko antolaketa- eta plangintza-gaitasuna garatu eta hotel batek eskaintzen dituen instalazioen eta zerbitzuen ikuspegi orokorra eskaini ere.

MODALITATEA		Online: prestakuntza-ikastaro hau online egiten da, bideokonferentzia-plataforma baten bidez.		
HASIERA DATA 2020/11/17	AMAIERA DATA 2020/12/22	ORDUTEGIA 10:00 - 14:00	IRAUPENA 100	ZENBAT PLAZA 10
SARTZEKO BALDINTZAK		Ez dago baldintzarik.		



IZEN EMATEKO ORRIA

2020ko IKASTAROAK IRAILA-ABENDUA



Izen ematea Behargintza Leioan edo behargintzaleioa.net web orrian

Izen-ematea 2020ko iralaren 1etik aurrera. Izena emateko azken eguna:
ikastaroa hasi baino astebete lehenago, leku libererik egon ezean

IZEN-ABIZENAK: _____

NAN: _____

TELEFONOA: _____

HELBIDE OSOA: _____

UDALERRIA: _____

EMAIL: _____

EGINDAKO IKASKETAK: _____

NAHIAGO DUZUN HIZKUNTZA: EUSKARA GAZTELANIA

BEHARGINTZA LEIOAN IZENA EMANDA ZAUDE? BAI EZ

IKASTAROAK

- 1 LAN-KUDEAKETA, NOMINAK ETA GIZARTE-SEGURANTZA + NOMINAFOKE
- 2 ERAKUSLEIHO-APAINKETA EDO ESKAPARATISMOA ETA VISUAL MERCHANDISING-A
- 3 TELEPRESTATZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA TEKNIKO ETA PEDAGOGIKOA
- 4 ELIKAGAIEN MANIPULATZAILE IZATEKO, ETA ALERGENOEI ETA INTOLERANTZIEI BURUZKO IKASTAROA
- 5 GELA-ZERBITZARIA